

Ihoteak

Asteartea da egun nagusia, baina duela zenbait urte “**hiri ihotea**” ospatzen hasi zen larunbatean: koadrillak mozorrotzen dira eta herri bazkaria antolatzen da.

Igandean **kintoak** ateratzen dira eskean etxez etxe, garai batean jatekoa (piperropilak, urdaia, arraultzak) biltzeko, ondorengo afari-berendurako, eta gaur egun dirua. Izan ere, urtean 18 urte betetzen dituzten gazteak ihoteetan elkartu eta bost egunez festa egiten dute, herrian egun batzuetan, herritik kanpo beste batzuetan.

Asteartean, **umeen eguna** da eta **ihote tradizionalarena: txatar-morroak, aittun haundiya** eta **amiñ txikiya** protagonista dituen eguna. **Txatarrez** jantzita doaz txatar-morroak: zakua soinean, lastozko kapela buruan, aurpegia estalita oihal zuriaz, zatak oinetan eta zumezko edo lizarrezko makila eskuan, jendeari aztaletan jotzeko. Aittun haundiya eta amiñ txikiya panpinak **plazan erre** ondoren ateratzen dira jendea izutzerat. Honela kantatzen zaie txatar-morroei:

Txatar-morro

begi-gorri

urtian behin etorri

Ez etorri, ez etorri

Begi-gorri, begi-gorri

Ohiturak aldatzen joan dira. Garai batean, gerra aurretik, egun nagusia igandea izaten zen, eta orduan erretzen zituzten panpinak. Gizonak txatarrez janzten ziren eta etxeetara sartzen ziren nesken eta umeen atzetik. Astelehenean haurrak "pixket" eskean ibiltzen ziren, eta asteartean gazteak